



PRENTSA-OHARRA

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAK ZEHAPENIK GABE ITXI DU EAEKO ADINEKOENTZAKO EGOITZETAKO FARMAZIA-ZERBITZUARI BURUZKO ZEHAPEN-PROZEDURA

Lehiaren Euskal Agintaritzak “itundutako amaiera”ren bidezko itxiera erabaki du EAEko adinekoentzako egoitzetako farmazia-zerbitzuari buruzko zehapen-prozeduran.

Eragindako enpresa batzuen salaketak direla eta, espedienteak ondokoak aztertu zituen: farmazia-zerbitzuak ematearen arloan lehia ustez murrizten duten jokabideak, EAEko Farmazilarien hiru Elkargo Ofizialen, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Foru Aldundien arteko hitzarmen baten eraginez.

Hitzaremen horrek merkatua ixten zuen, farmazia-bulego zehatz batzuen mesedetan. Espedientea zehapenik gabe itxi da lehiaren aurkako jokabideak saihesteko konpromisoak aurkeztu dituztelako alde guztiek. Zehazki, Jaurlaritzako Osasun Sailak adinekoentzako egoitzetako farmazia-zerbitzuei buruzko dekretu arautzaile bat egingo duela hitzeman du. Dekretu hori aplikatzean lehiaren aurkako oztopoak ezabatuko dira.

Bilbo, 2014ko urriaren 10a.

Lehiaren Euskal Agintaritzak itundutako amaieraren ebazpena (zehapenik gabeko itxiera) eman du ondoko espedientearen: Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitzetako farmazia-zerbitzua emateko sistema eta lehia askea bateragarriak ziren aztertu zuena, sektoreko bi enpresen salaketa dela eta.

Lehia ustez murrizten zuen jokabideak adinekoentzako egoitzetan botikak ematearren EAEko Farmazilarien hiru Elkargo Ofizialek, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Foru Aldundiek sinatutako hitzarmenean zuen jatorria. Hitzarmenak zera xedatzen zuen: adinekoentzako egoitzetan farmazia-bulegoek bakarrik eman ahal zituztela industria-fabrikazioko botikak; eta farmazia-bulegoen artean, “berezko baliabideak” zituztenek bakarrik. Hitzarmen horretan beste operadore batzuek ere botikak eman ahal izateko beharrezkoa zen



erregelamendua ez egiteko konpromisoa hartu zuen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak. Halaber, egoitzetan emandako botika batzuen fakturazioan %7ko beherapena egingo zutela hitzeman zuten zerbitzua eman ahal zuten farmaziek.

Hitzarmenak adinekoentzako egoitzetan industria-fabrikazioko botikak emateko merkatua ixten zuen. Izan ere, berezko baliabideak dituzten farmazia-bulegoek bakarrik eman ahal izan dute zerbitzu hori. Beraz, eragotzi egiten zen farmazia-bulegoak ez ziren operadoreek edo berezko baliabideak ez zituzten farmazia-bulegoek zerbitzu hori ematea.

Espedientea zehapenik gabe itxi da aldeek, LEAren aburuz, espedientea irekitzea eragin zuten jokabideek lehian zituzten ondorioak konpondu eta interes publikoa bermatzen duten konpromisoak aurkeztu dituztelako.

Osasun Sailak, ebazpenean bertan jasotako epean, egoitzetako farmazia-zerbitzua berrantolatuko duen dekretua egiteko konpromisoa hartu du.

Dekretuak zentro soziosanitarioetako farmazia-zerbitzuak arautuko ditu eta hauxe izango da bere xedea: balizko operadoreak adinekoentzako egoitzetako farmazia-zerbitzuaren merkatuan sartu ahal direla bermatzea, haien arteko lehia baimenduz.

Halaber, aurreikusitako neurri iragankorrei esker, lehia bermatuta egongo da dekretu hori gauzatu arte.

Legearen arabera zerbitzua eman dezaketen operadore guztiek merkatu horretan sartzeko aukera izatea lortu du ebazpenak. Operadoreen arteko lehiak baldintzen (salneurria, kalitatea, ...) hobekuntza ekarriko du, erabiltzaileen mesedetan.